

# Merkatuaren Segmentazioa

## - Zein da zure bezeroa?

Aplikazio hau edozein adinako bezeroari zuzenduta dago, nahiz eta aplikazioaren funtsagatik umeak erralitatean ez duten erabiliko, adin zaharrekoak beraien modernitatearen arabera, hots, umeak eta aiton-amona askok ez dituztelako mugikorrik. Gomenda dezaketenak ingurumenarekiko kezka agerian uzten duten pertsona oro izan daiteke, bai guraso eta bai gazte. Aplikazioa doainik izango denez, pertsona askori iristea espero dugu. Hizkuntza desberdinetan edukitzeko aukera ere egongo da, Espainia mailan hitz egiten diren hizkuntza guztietan.



## - Zein dira bezero horien ezaugarriak?

Aipatu bezela, lau bezero desberdin ditugu eta horietako bi enpresen taldekoak dira. Enpresen taldekoak honako hauek dira:

- Gure plataformaren bidez deskontuak emango dizkiete beste bezeroei haienak ere izateko.
- Beste enpresa batzuk, sortuko dugun aplikazioaren bitartez haien publizitatea zabalduko dute hauek ere bezero berriak lortzeko.

Gainerako bezeroak: ingurumenataz arduratzen direnak eta haien ohiturak aldatu nahi izango dituztenak dira.

Argi dago bezerorik gabe ezin izango dugula gure proiektua aurrera eraman, horregatik dibertsifikatutako merkatuari zuzenduko gara, hazkundera handitzeko eta arriskuak murrizteko etorkizun batean produktu berriak eskeini ahal izateko eta merkatu berrietan sartzeko helburuarekin.

